

AKTA

Udalbatzarraren ohiko bilkura

EGUNA: 2024ko maiatzaren 30a, osteguna

TOKIA: Udalbatzarraren aretoa

DEIALDIA: Lehena

HASTEKO ORDUA: 19:30 **BUKATZEKO ORDUA:** 20:15

BERTARATUAK:

Alkatea

Anuska Esnal Oliden

Zinegotziak

Olatz Santamaria Bereziartua, Xabier Ibarburen Azkue, Ainara Munduate Iguaran, Bittor Andres Alkorta, Iñaki Makazaga Urdangarin, Lohitzune Solabarrieta Odriozola, Iosu Lizarralde Ibarbia, Nagore Rementeria Argote, Inaxio Alguacil Barrenetxea, Noemi Ostolaza Arkauz, Lourdes Salsamendi Goñi eta Jon Basurko Sarasua.

Idazkari-kontu-hartzailea

Jon Carrera Jauregi

Gai-zerrenda

- 1.- Irakurri eta onartzea, egoki bada, udalbatzarraren 2024ko apirilaren 25eko ohiko bilkuraren aktaren zirriborroa.
- 2.- 2024ko lehenengo hiruhileko berankortasun-txostenaren berri ematea.
- 3.- 2024ko udal-aurrekontuaren lehenengo hiruhilekoaren exekuzioaren berri ematea.

- 4.- Onartzea, egoki bada, Orioko Musika Eskola publikoaren 2024-2025 ikasturteko musika-irakaskuntzaren tarifak.
- 5.- Lehen onarpena ematea, egoki bada, izaera urbanoko lurren balio-gehikuntzaren gaineko zerga arautzen duen ordenantza fiskalaren aldaketari.
- 6.- Onartzea, egoki bada, Orioko Etxez Etxeko Laguntza zerbitzuaren kontratuaren prezioen berrikuspena.
- 7.- Onartzea, egoki bada, 2025eko herriko jaieguna.
- 8.- Onartzea, egoki bada, «EUSKARAZ HOBETO! Orioko Udalaren erabilera-plana 2024-2027».
- 9.- Eskariak eta galderak.

Esan-eginak

1.- IRAKURRI ETA ONARTZEA, EGOKI BADA, UDALBATZARRAREN 2024KO APIRILAREN 25EKO OHIKO BILKURAREN AKTAREN ZIRIBORROA.

Udalbatzarrak gaiaren berri jakiten du.

Udalbatzarra jakinaren gainean geratzen da eta, inork inolako oharrik egiten ez duenez, gaia eztabaidatu ondoren, **HAU ERABAKITZEN DU, AHO BATEZ** [guztira, **HAMAHIRU BAIEZKO BOTO**; gehiengo osoa, beraz]:

ONARTZEA udalbatzarraren 2024ko apirilaren 25eko ohiko bilkurako akta.

2.- 2024KO LEHENENGO HIRUHILEKO BERANKORTASUN-TXOSTENAREN BERRI EMATEA.

Udalbatzarrak gaiaren berri jasotzen du eta jakinaren gainean geratzen da.

3.- 2024KO UDAL-AURREKONTUAREN LEHENENGO HIRUHILEKOAREN EXEKUZIOAREN BERRI EMATEA.

Udalbatzarrak gaiaren berri jasotzen du eta jakinaren gainean geratzen da.

4.- ONARTZEA, EGOKI BADA, ORIOKO MUSIKA ESKOLA PUBLIKOAREN 2024-2025 IKASTURTEKO MUSIKA-IRAKASKUNTZAREN TARIFAK.

Udalbatzarrak gaiaren berri jakiten du. Udaleko Herritarrentzako Zerbitzuen batzordeak honela diktaminatu zuen gaia 2024ko maiatzaren 17an egindako bilkuran:

ALDATZEA eta EGOKITZEA Orioko Musika Eskola publikoaren 2024-2025 ikasturteko musika-irakaskuntzaren tarifak, Euskadiko Autonomia Erkidegoko musika- eta dantza-eskolei buruzko dekretu berrian ezarritakoa betetzeko.

Udalbatzarra jakinaren gainean geratzen da eta Herritarrentzako Zerbitzuen batzordeak 2024ko maiatzaren 17an emandako diktamena ikusita, gaia eztabaidatu ondoren, **HAU ERABAKITZEN DU, AHO BATEZ** [guztira **HAMAHIRU BAIEZKO BOTO**; gehiengo osoa, beraz]:

ONARTZEA Orioko Musika Eskola publikoaren 2024-2025 ikasturteko musika-irakaskuntzaren tarifak, Euskadiko Autonomia Erkidegoko musika- eta dantza-eskolei buruzko dekretu berrian ezarritakoa betetzeko, eta tarifa horiek **SARTZEA** udalbatzarraren 2024ko apirilaren 25eko ohiko bilkuran onartutako tarifen informazio publikoko tramitean.

5.- LEHEN ONARPENA EMATEA, EGOKI BADA, IZAERA URBANOKO LURREN BALIO GEHIKUNTZAREN GAINEKO ZERGA ARAUTZEN DUEN ORDENANTZA FISKALAREN ALDAKETARI.

Udalbatzarrak gaiaren berri jakiten du. Gaia 2024ko maiatzaren 24ko Barne Atolaketa batzordean diktaminatu da, segidan zehazten den eran:

*Diktaminatzen da **ALDATZEA eta EGOKITZEA** izaera urbanoko lurren balio-gehiakuntzaren gaineko zerga arautzen duen ordenantza fiskalari aplikagarriak zaizkion koefizienteak, 2024ko zergetan aldaketa batzuk onartzen dituen maiatzaren 10eko 1/2024 Foru Arauan ezarritakoaren arabera (2024ko maiatzaren 17ko GAO, 95. zenbakia). Diktaminatutakoaren arabera, koefiziente aplikagarriak hauek izango dira 2024ko urtarrilaren 1etik 2024ko maiatzaren 17ra bitartean, biak barne:*

SORTZEKO ALDIA	KOEFIZIENTEAK	KARGA-TASA (%)
<i>Urtebetetik behera</i>	<i>0,14</i>	<i>30</i>
<i>Urtebete</i>	<i>0,13</i>	<i>30</i>
<i>2 urte</i>	<i>0,14</i>	<i>30</i>
<i>3 urte</i>	<i>0,15</i>	<i>30</i>
<i>4 urte</i>	<i>0,17</i>	<i>30</i>
<i>5 urte</i>	<i>0,17</i>	<i>30</i>
<i>6 urte</i>	<i>0,16</i>	<i>20</i>
<i>7 urte</i>	<i>0,12</i>	<i>20</i>
<i>8 urte</i>	<i>0,10</i>	<i>20</i>

9 urte	0,09	20
10 urte	0,08	20
11 urte	0,08	10
12 urte	0,08	10
13 urte	0,08	10
14 urte	0,09	10
15 urte	0,10	10
16 urte	0,13	10
17 urte	0,17	10
18 urte	0,23	10
19 urte	0,29	10
20 urte edo gehiago	0,45	10

Eta 2024ko maiatzaren 18tik aurrera, hauek izango dira koefizienteak:

SORTZEKO ALDIA	KOEFIZIENTEAK	KARGA-TASA (%)
Urtebetetik behera	0,14	30
Urtebete	0,13	30
2 urte	0,14	30
3 urte	0,14	30
4 urte	0,16	30
5 urte	0,17	30
6 urte	0,16	20
7 urte	0,12	20
8 urte	0,10	20
9 urte	0,09	20
10 urte	0,08	20
11 urte	0,08	10
12 urte	0,08	10

13 urte	0,08	10
14 urte	0,09	10
15 urte	0,09	10
16 urte	0,10	10
17 urte	0,13	10
18 urte	0,17	10
19 urte	0,23	10
20 urte edo gehiago	0,40	10

Udalbatzarra jakinaren gainean geratzen da eta, Barne Antolaketa batzordeak 2024ko maiatzaren 24an emandako diktamena ikusita, gaia eztabaidatu ondoren, **HAU ERABAKITZEN DU, AHO BATEZ** [guztira **HAMAHIRU BAIEZKO BOTO**; gehiengo osoa, beraz]:

1.- LEHEN ONARPENA EMATEA izaera urbanoko lurren balio-gehikuntzaren gaineko zerga arautzen duen ordenantza fiskalari aplikagarriak zaizkion koefizienteen aldaketari, 2024ko zergetan aldaketa batzuk onartzen dituen maiatzaren 10eko 1/2024 Foru Arauan ezarritakoaren arabera (2024ko maiatzaren 17ko GAO, 95. zenbakia), goian aipatutako diktamenean jasotako termino beretan.

2.- JENDAURREAN JARTZEA erabaki hau eta hasitako espedientea, Gipuzkoako Toki Ogasunak arautzen dituen uztailaren 5eko 11/1989 Foru Aginduaren 16.1 artikuluan ezarritakoa betez, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean eta udaletxeko iragarki-taulan iragarkiak argitaratuz, arau hauen arabera:

a) Erakutsita dagoen lekua: Udaletxeko idazkaritza.

b) Espedientea aztertzeko eta, hala badagokio, erreklamazioak aurkezteko epea: 30 lanegun, iragarki hau Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo lanegunetik kontaktzen hasita; betiere, bulego-orduetan.

c) Erreklamazioak aurkezteko aukera dutenak: Uztailaren 5eko 11/1989 Foru Arauaren 17. artikuluko zerrendan agertzen direnak.

d) Aurkezteko lekua: Udaletxeko Sarrera Erregistro Nagusia. Erreklamazioak aurkez daitezke, baita ere, Herri Administrazioen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 16.4 artikulua zehazten dituen tokietan.

e) Erreklamazioak jasotzen dituen organoa: Udalbatzarra.

Jendaurreko epea amaitu eta erreklamazio edo oharrik aurkezten ez bada, hartutako erabakiak eta aldatutako ordenantzen eranskinak behin betikoak bilakatuko dira, beste erabakirik hartu behar izan gabe.

6.- ONARTZEA, EGOKI BADA, ORIOKO ETXEZ ETXEKO LAGUNTZA ZERBITZUAREN KONTRATUAREN PREZIOEN BERRIKUSPENA.

Udalbatzarrak gaiaren berri jakiten du.

Udalbatzarra jakinaren gainean geratzen da eta, Barne Antolaketa batzordeak 2024ko maiatzaren 24an emandako diktamena ikusita, gaia eztabaidatu ondoren, **HAU ERABAKITZEN DU, AHO BATEZ** [guztira **HAMAHIRU BAIEZKO BOTO**; gehiengo osoa, beraz]:

ONARTZEA Orioko Etxez Etxeko Laguntza zerbitzuaren kontratuaren prezioen berrikuspena. Prezioen berrikuspen horrek, 2024ko urtarriletik apirilera, 23.059,04 euroko zenbatekoa sortzen du (BEZa barne) enpresa adjudikaziodunaren alde.

Emandako botoa azaltzeko, Noemi Ostolaza zinegotziak hartzen du hitza, EAJren izenean, eta adierazten du, bere talde politikoaren ustez, Orioko Udala lantzen ari den zaintza-ekosistema funtsezko elementua dela Etxez Etxeko Laguntza zerbitzua emateko. Aldi berean, adierazten du pozik daudela Orioko Etxez Etxeko Laguntza zerbitzua arautzen duen hitzarmen kolektibo berria sinatu izanarekin, eta esaten du, baita ere, bere talde politikoa prest dagoela beti gai honetan laguntzeko, behar den guztian.

Anuska Esnal alkateak hartzen du hitza eta adierazten du udalbatzarrak bilkura honetan onartutako Orioko Etxez Etxeko Laguntza zerbitzuaren kontratuaren prezioen berrikuspena aurreikusita zegoela 2024ko udal-aurrekontuan. Adierazten du, baita ere, Orioko etxez etxe laguntza-zerbitzuaren prestazioa arautzen duen hitzarmen kolektibo berria sinatzearekin erantzuna eman zaiela langileen aspaldiko lanaldarrikapenei, 2011tik baitzeuzkaten soldatak izoztuta. Orain, berriz, balioa aitortu zaio Etxez Etxeko Laguntza zerbitzuaren lanari, eta horrek eragin zuzena izango du eguneko zentroan. Orioko Etxez Etxeko Laguntza zerbitzua emateko lizitazio berrian hitzarmen kolektibo berria aplikatuko da.

7.- ONARTZEA, EGOKI BADA, 2025EKO HERRIKO JAIEGUNA.

Udalbatzarrak gaiaren berri jakiten du. Barne Antolaketa batzordeak 2024ko maiatzaren 24an egindako bilkuran diktaminatu du Orioko jaieguna 2025. urterako ekainaren 30a izatea, San Pedro bigarrena.

Udalbatzarra jakinaren gainean geratzen da eta, Barne Antolaketa batzordeak 2024ko maiatzaren 24an emandako diktamena ikusita, gaia eztabaidatu ondoren, **HAU ERABAKITZEN DU, AHO BATEZ** [guztira **HAMAHIRU BAIEZKO BOTO**; gehiengo osoa, beraz]:

PROPOSATZEA Eusko Jaurlaritzako Lan eta Enplegu Sailaren Gipuzkoako Lurralde Ordezkaritzari Orioko 2025eko jaieguna hau izatea: ekainaren 30a, San Pedro bigarrena; jaiegun hori baliogabea izango da lanerako, ordaindua eta errekuperatu beharrik gabekoa.

Hori guztia Eusko Jaurlaritzako Lan eta Justizia Sailaren apirilaren 23ko 49/2024 Dekretuaren 2.2 artikuluan ezarritakoa betez. Dekretu horrek Euskadiko Autonomia Erkidegoko jaiegunen Egutegi Ofiziala onartzen du 2025. urterako.

8.- ONARTZEA, EGOKI BADA, «EUSKARAZ HOBETO! ORIOKO UDALAREN ERABILERA-PLANA 2024-2027».

Udalbatzarra jakinaren gainean geratzen da.

Planaren sarreran hau jasotzen da, hitzez hitz:

SARRERA

Dokumentu honen helburua da erakustea euskarazko jardunak zer toki duen Orioko Udalean, eta zer pauso eman behar diren erabilera indartu eta areagotzeko. UEMAre irizpideak aintzakotzat hartu dira dokumentua idazteko. Horrez gain, Udalak aurrerantzean erabiliko dituen hizkuntza-irizpideak ere jaso dira dokumentuan, eranskin gisa.

Erabilera-planak kudeatzeko HPSk proposatutako metodologia eta aplikazio berriak tarteko, atzeratu egin da planaren azken lanketa eta onarpena eta, azkenean, bat egin du 86/1997 dekretua ordeztu duen 19/2024 dekretu berriarekin. Beraz, aukera izan dugu helburuak eta irizpideak eguneratzeko legeria berriaren arabera.

2023-2027 plangintzaldirako balio du dokumentu honek eta, urtez urte, kudeaketa-plan bat egingo zaio, hemen zehaztutako helburuak betetzeko ekintzak definitzeko.

Gaur egungo egoeraren ebaluazioa egiteko, udal-langileen eta erakundearen ekarpenak jaso dira eta, abiapuntu horrekin, helburu orokor batzuk jarri ditugu. Hala ere, plan estrategiko hau etengabe aberasten eta egokitzen joan beharko dugu, elkarlanean.

Orioko Udala UEMako kide Orio herri euskalduna da (euskaldunak %75 dira; ia-euskaldunak, %11,5; eta euskaraz ez dakitenak, %13,5, 2021eko datuen arabera) eta dagoeneko bide luzea egin du euskararen sustapenean. Bide horren barruan, Orioko Udalak UEMako kide izatea erabaki zuen 2002an eta, orduz geroztik lankidetzan jardun dute bi erakundeok, bai udal-administrazioa euskalduntzeko bidean, bai herrira begirako hainbat jardueratan. UEMak zehaztutako gidalerroak eta oinarritzko irizpideak aintzat hartu ditugu plan estrategiko hau lantzeko orduan ere.

EUSKARAZ HOBETO!

Plangintzaldi berri hau aldaketa handien bezperatan dator: ez dirudi ausartegia esatea adimen artifizialaren olatuak goitik behera aldatuko duela administrazioaren jarduteko era (ere) eta dagoeneko hasita gaude ikusten horren

zantzu batzuk: itzulpen neuronalaren iraultza, testu-sorkuntza automatizatua, chatbot espezializatuak, espedienteen kudeaketan Orioko Udala. Euskararen erabilera normalizatzeko plana. 7. plangintzaldia (2024-2027) aurki datorren aldaketa handia... Tresna berri horiek aukera ugari eskainiko dizkigute eta, ezinbestean, baita erronka berriak planteatu ere. Horri guztiari ere begiratu beharko diogu plangintzaldi berri honetan.

Erabilera-planari **EUSKARAZ HOBETO!** izena jarri diogu, hain zuzen ere, uste dugulako hizkuntzaren teknologia berriek ematen (eta emango) dizkiguten aukera berriak baliatu behar ditugula **euskaraz gehiago eta hobeto egiteko**. Orioko Udalak dagoeneko euskaraz funtzionatzen du neurri handi batean, baina badugu zer hobetu darabilgun hizkuntzaren kalitateari dagokionez. Hori hobetzea izango da plangintzaldi honetako erronka nagusia.

Aldi berean, aldarria ere bada **EUSKARAZ HOBETO!** leloa, udal-langileei eta oriotarrei adierazteko Udalak euskara erabili nahi duela herritarrekiko harremanetan eta barruko jardunean. Hori dugula xede. Alegia, aspaldiko kantak zioen bezala, nahi dugula «lan eta bizi euskaraz». Horretara goaz.

Planaren lege-testuinguruari buruzko atalean, berriz, hau jasotzen da, hitzez hitz:

LEGE-TESTUINGURUA

EAEko **Euskararen Erabilpena Arauzkotzeko Oinarrizko Legeak**, azaroaren 24ko 10/1982 zenbakidunak, herritarren hizkuntza-eskubideak aitortu eta herri-ginteez hizkuntzaren alorrean dituzten betebeharrak ezartzen ditu.

Legearen 14. atalak aurreikusten du, herritarren hizkuntza-eskubideak bermatzeko, administrazioaren zerbitzupeko langileak arian-arian euskaldundu behar direla eta zehaztu behar dela zein lanpostutan den nahitaezkoa bi hizkuntza ofizialak jakitea.

Lege-euskarri artean arin horrekin, **Orioko Udala Euskal Herriko lehenbizikoetakoa izan zen «Udal-langilegoa euskalduntzeko eta alfabetatzeko plangintza» bat onartzen**, 1988an. Plangintza haren bidez, Udalak euskalduntze- eta alfabetatze-bidean jarri zituen udal-langileak, bakoitzari ezarritik bete beharreko maila eta epe bat jarritz hura betearazteko.

Geroztik, Euskal Autonomia Erkidegoko **Euskal Funtzio Publikoari buruzko uztailaren 6ko 6/1989 legea** onartu zen, eta haren V. titulua eta hori garatzeko Eusko Jaurlaritzak herri-administrazioetan euskararen erabilera normalizatzeko onartutako arauak dira herri-administrazioetako euskararen erabileraren normalizazio-prozesuaren oinarria. Arau horiek izan ziren lehen plangintzaldiaren oinarria (1990-1995).

Bigarren plangintzaldia arautu zuen Euskal Autonomia Erkidegoko **86/1997 dekretuak**, berriz, apirilaren 15ekoak, elementu berriak erantsi zizkien lehenengo plangintzaldiko arauak, bereziki erabilera sustatu behar diren inguruan. Horrela,

dekretuak euskararen erabilera normalizatzeko plana onartu beharra ezarri zien euskal herri-administrazio guztiei. Gainera, plan horiek jaso beharreko gutxieneko osagaiak zehaztu zituen 18. atalean.

Berariaz aipatu beharra dago, baita ere, **2/2016 Legea, apirilaren 7koa, Euskadiko Toki Erakundeei buruzkoa**, «Udalen Legea» gisa ezagutzen dena, eta hura garatzen duen 179/2019 dekretua, azaroaren 19koa, Euskadiko toki-erakundeetan hizkuntza ofizialen erabilera instituzionala eta administratiboa normalizatzeari buruzkoa. Bi lege-arau horiek irizpideak ematen dituzte euskararen erabilera arautzeko eta norabide argi bat ezartzen diote udal-administrazioari, euskara gero eta gehiago erabiltzekoa.

Azkenik, aipatutako 86/1997 dekretua ordeztu berri duen **19/2024 dekretua** oraintsu jarri da indarrean eta, aurrerantzean, horrek markatuko du herri-erakundeetako hizkuntza-plangintzaren norabidea.

Horrez gain, sarreran esan dugun bezala, **Orioko Udala UEMaKo kide da 2002az geroztik** eta UEMaRen helburu nagusia, bere estatutuetan jasoa, hauxe da: «euskararen erabilera ahalbidetzea eta bermatzea mankomunitatea osatzen duten udaletako barne-jardueran eta udalerrietako arlo guztietan».

Unean uneko lege-arauetan oinarrituta, **Orioko Udalak Euskararen Erabilera Normalizatzeko Planak** idatzi eta onartu ditu plangintzaldiz plangintzaldi eta, plan horien bidez, **aurrerabide nabarmena egin du euskararen normalizazioan**: euskarako klaseak antolatu ditu langileentzat, euskara ikasteko liberazioak bideratu ditu, hizkuntza-eskakizunak ezarri ditu, eguneroko jardunerako hizkuntza-irizpideak landu eta aplikatu ditu... **Orioko Udalak egindako ahalegin handiari esker, gaur egun gai da zerbitzua erabat euskaraz emateko herritarrei.**

Azken urteotan kudeaketak hartu du gero eta pisu handiagoa, eta hizkuntza-lidergoak ere bai. Udalari eredugarri jokatzeko dagokio, eta 7. plangintzaldirako gidalerro nagusia horixe izango da. Arduradun politiko eta teknikoak izango dira, ezinbestean, Udalean euskararen erabilera kudeatu eta gidatuko dutenak, jarrera proaktiboa erakutsita.

Planaren Metodologia eta prozedura atalean, azkenik, hau jasotzen da, hitzez hitz:

METODOLOGIA ETA PROZEDURA

Plan estrategiko hau egiteko Eusko Jaurlaritzak 7. plangintzaldirako proposatutako metodologia eta irizpideak baliatu ditugu, eta oinarrian **KEMEN markoa** dago. Laguntza-koadro bat da KEMEN, erakundeetan hizkuntzaren presentzia, erabilera eta kudeaketa zertan gauzatu ohi den adierazten duena modu eskematiko eta ordenatuan.

Bi ardatz nagusi ditu: **KUDEAKETA eta ERABILERA**. Hauek dira metodologiaren ezaugarri nagusiak:

- *Euskararen erabilera sustatzera bideratutako kudeaketa.*
- *Planen eta hizkuntza-irizpideen jarraipen sistematikoa.*
- *Erakundeko kargudunen eta arduradunen inplikazio eta lidergoa.*
- *Zeharkakotasuna erronka gisa.*

*Jaurlaritzak aplikazio informatiko bat jarri du udalon eskura, **SAREGIN** izenekoa, eta horren bitartez 2024ko urtarrilean argazki bat atera zaio Orioko Udalari, euskararen erabilera nola kudeatzen duen ikusteko.*

Datu horiek lortzeko bi galdetegi bete dira:

- *Erakundeari dagokiona, euskara-teknikariak lankide eta arduradun batzuen laguntzaz zehaztutakoa (tarte behaketa batzuk eginez).*
- *Langileen galdetegi: 29 bidali dira, eta 28 erantzun jaso (18 emakume eta 10 gizon).*

Erabilera-plana Eusko Jaurlaritzaren Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzara bidaliko dugu, udalbatzarrera eraman aurretik behar duen aldeko txostena jaso dezan. Ondoren, erabilera-plana udalbatzarrak onartuko du eta bilkura horretan bertan, planaren jarraipen-batzordea eratu eta batzordeko kideak izendatuko ditu Udalak.

Herritarrentzako Zerbitzuen batzordeak «EUSKARAZ HOBETO! Orioko Udalaren erabilera-plana 2024-2027» onartzearen aldeko diktamena eman zuen, 2024ko maiatzaren 17ko bilkuran, baina ez zuen diktamenik eman planaren jarraipen-batzordearen osaketari buruz; beraz, azken puntu horrek mahai gainean geratu behar du, hurrengo udalbatzarrean erabakitzeko, behin Herritarrentzako Zerbitzuen batzordean diktaminatu eta gero.

Udalbatzarra jakinaren gainean geratzen da eta Herritarrentzako Zerbitzuen batzordeak 2024ko maiatzaren 17an emandako diktamena ikusita, gaia eztabaidatu ondoren, **HAU ERABAKITZEN DU, AHO BATEZ** [guztira **HAMAHIRU BAIEZKO BOTO**; gehiengo osoa, beraz]:

1.- ONARTZEA «EUSKARAZ HOBETO! Orioko Udalaren erabilera-plana 2024-2027».

2.- MAHAI GAINEAN UZTEA erabilera-planaren jarraipen-batzordearen osaketa, hurrengo udalbatzarrean erabakitzeko, behin Herritarrentzako Zerbitzuen batzordean diktaminatu eta gero.

Emandako botoa azaltzeko, Noemi Ostolaza zinegotziak hartzen du hitza, EAJren izenean, eta adierazten du bere talde politikoa pozik dagoela «EUSKARAZ HOBETO!» izeneko erabilera-plana onartzeagatik. Adierazten du honako hau zazpigarrena dela eta espero duela ez izatea azkena eta etorkizunean ere plan berriak onartzea, Udalaren premietara egokituta, arlo honetan aurrerapenak egiten segitzeko, atzera egin gabe.

Iosu Lizarralde zinegotziak hartzen du hitza, EH Bilduren izenean, eta adierazten du bere talde politikoa pozik dagoela «EUSKARAZ HOBETO!» izeneko erabilera-plana onartu izanarekin. Planaren helburua euskararen erabilera sustatzea da Orioko Udalean, garrantzi berezia emanez, Udalak darabilen euskararen kalitateari. Planaren arabera, euskara izango da Orioko Udalaren hizkuntza nagusia, eta Udalak urtez urte garatuko du erabilera-plana, dagozkion kudeaketa-planen bidez.

9.- ESKARIAK ETA GALDERAK.

Ez ziren izan.

Horrenbestez, alkateak bilkurari amaiera ematen dio eta, erabakitakoa jasota gera dadin, nik, idazkaria naizenez, akta hau egiten dut alkatearen ontzat emanarekin.

ALKATE-PRESIDENTEA,

IDAZKARIA,